

Zer feriatzen dute **FARMAZIA BELTZEAN?**



Bat-batean agertu ziren liburu dendetan, inolako abisurik eman gabe: gurutze bat atzealdean inprimaturik zeukaten aleak, Farmazia Beltza idatzirik albo batean. Argazki-azpтитulu esperimentu bat izan zen aurrenekoa, eta segidan etorri ziren beste lau artefaktu, guztiak ere ohiko argitaletxeetan nekez kabitzeakoak. Farmaziako bi botikariorekin bildu gara Donostiako Komikigunean, guztia nola hasi zen eta aurrerantzean ze asmo dituzten jakiteko.

TESTUA | KEPA MATXAIN
ARGAZKIA | DANI BLANCO

"Dei gaitzazu botikario, axola ez badizu" diote bata zuri-ur-dinak soineratu berritan. Ez misteriozko auraz inguratzeagatik, pertsonalismoetatik ihes egin nahi dutelako baizik. Farmazia Beltza kolaboratzaile sare zabal batek osatzen duenez, proiektuari fidel izateko modua da aurpegiak ez erakustea. "Gutaz gain, tartean dago Katakraheko jendea, Talaiosekoa, Txintxuakoa, Ereitenekoa... jende pila kati-gatu dugu". Botikario asko dituen organismoa da proiektua, eta aurrerantzean hala segi dezan nahi dute.

"Farmazia Beltzak argitaletxeen munduan izan nahi du liburu dendeen munduan direna Garoa, Tobacco Days, Kaxilda, Hontza, Katakarak, Anti, Zuloa edota Hitz". Banan bana aipatu nahi izan dituzte, bakoitzari dagokion garrantzia emanez. "Horiek dira gure parafarmaziak. Bezero izan ginen lehenik, lagun gerora". Liburu dendok ez dituzte denda soiltzat. "Elkarguneak dira, gauzak gertatzen diren espazioak, proiektu txikiak bezain beharrezkoak. Topikoa dirudi, baina balio du mikro munduaren defentsa egiteko". Beraiek ere txiki jarraitu nahi dute, ohiko argitaletxeen dinami-

ketan sartu gabe. Ahalik eta proiektu jasangarrienak eginez, bai, baina diru-laguntzen eta abarren morrontzan erori gabe. Azaldu dutenez, gisa horretara soilik berma daitekeelako egun daukaten askatasuna.

Iazko uda partean agertu ziren gurutze zigiludun lehen botikak aipatu liburu dendetan. "Beso zabalik hartu gintuzten, inolako baldintzarik jarri gabe". Koldo Almandozen *Argazkiazpittuluak* izan zen aurrenekoa. *The Balde* aldizkarian hasitako esperimentu baten jarraipena da: hiri bati buruz dokumentatzerakoan azpittulu batzuk idatzi, pegatina modura inprimatu, eta behin hirira iristean, pegatinetako esaldiei egoera bat topatu eta argazki bat ateratu. "Beste begirada batekin bidaiaitzeko proposamena" da liburua. Horren ondoren argitaratu zuten Zu2 saileko lehen liburua, Garbiñe Ubedaren eta David Zapirainen testu bana biltzen duena. "Gustatzen zaigu bi egileren ikuspegiak batzea liburu berean. Izan daiteke bien artean kontraste handia dagoelako, edo gai berera hurreratzeko modu desberdinak dituztelako... Aurrerantzean ere errepikatu nahi genuke formatu hori".

Segidan iritsi zen Almandozen beste liburu bat, *Oreina* filma grabatu bitartean idatzitako bitakora-kaiera. "Txintxua Filmsek atera zezakeen afixa handi bat pelikularen promozioa egiteko, edo argitara zezakeen liburu hori. Bigarrena hautatu zuen". Hurrena, berriz, Zerocalcare komikigile italiarraren lan berria argitaratu zuten *-Hondamuienean*, Koldo Izagirrek euskaratua-. Istorio berezia du atzean, botikarioetako batek kontatu duenez: "David Zapiirainek aspaldian eman zidan komikigile horren berri, eta pasa zidan *La profezia dell'armadillo* obra. Gerora, egun batez, bota zidan: Zerocalcareekin hizketan aritu naiz, eta bere lan berriaren eskubideak erosi dizkiot, euskaraz argitaratzeko. Halaxe. Ba tira, argitaratu beharko dugu ba". Orain, hurrengo lanaren eskubideak ere erosi dizkiote, eta aurrean argitaratzea espero dute. Azkenik, urtearen hondarrean argitaratu zuten *Uzta*, inguruko zortzi lagun pieza desberdinekin osatutako bilduma. Ez dira enkarguz eskatutako lanak, ezpada kontrakoa: haiek bestela ere egiten ari zirenak bildu zituzten.

"Esaterako, entzuten duzu hitzaldi izugarri interesgarri bat, eta pentsatzen duzu, hemen gertatu dena galtzera doa. Hori gertatu zitzaigun, adibidez, Xabier Gantzarainek Garoan eman zuen hitzaldiarekin. Halakoak gordetzea ere bada gure asmoetako bat". Zerocalcareren berriaz gain, aurrean besterik argitaratzeko asmorik ote duten galdetuta, zera diote: "Ataka batean jarri gaituzu. Botepron-toan okurritzen zaigu: zergatik ez argitaratu rol joko bat, adibidez?"

ZARATAREN KONTRAKO BOTIKA

Bi botikariak elkarri hitza jan beharrean ari dira, erreleboka, Farmazia Beltza nondik nora sortu zen hitzetara ekarri nahian. Gogoratu dute nola

Naparteid aldizkariaren jiran ezagutu zuten elkar. "Gure arazoa zera da: zerbaite otutzen zaigunean, gero egin behar izaten dugula. Bururatu eta burutu. Izango da gure heziketarik, beti fanzine munduan ibili izan garelako... eta izango da belaunaldi kontu bat ere, ziur asko. Ekintza jendea gara, ez intelektualak. Eta askotan, gauzak hobeto pentsatuko bagenu, ez genituzke egingo". Burugogorak izan, ordea.

Betidanik gustatu zaie liburua objektu gisara, eta gustuko gauzak argitara zitzaketela ikusitakoan, bitan pentsatu gabe eman zuten jautzia. Hori bai, ez dute ohiko argitaletxe bat sortu nahi: "Liburu asko argitaratzen dira Euskal Herrian, askotan gehiegi, baina ildo batetakoak izaten dira. Garai batean Edo argitaletxeak saiatu ziren bestelako gauzak kaleratzen... Guk ez dakigu zer egingo dugun, baina bai zer ez dugun egingo". Nahi ez dutena da, besteak beste, proiektua egun erdiko lana bihurtzea. Egungo egiturari eta funtzionatzeko moduari eutsi nahi diote, gehiago hazi gabe. Aurkezpen publikorik ere ez dute egin. "Nazka pixka bat ematen du hemen ekitaldigintzarako dagoen ohiturak", diote. "Askotan ematen du gauzak egiten ditugula gero aurkezpen bat egiteko, eta egunkaritan ateratzeko. Literaturan, zineman... sarri ematen du egile batzuen asmoa ez dela idaztea edo filmak egitea, baizik eta idazle edo zinemagile izatea. Eta, Xabier Gantzarainek dioen bezala, dena korronteak eramaten du, ezerk ez du sedimentatzen. Edozein esku-orri aurkeztu eta orrialde oso bat ematen dizute. Edo argitaratzen du liburu bat idazle batek, eta elkarriketa berbera irakurtzen diozu bi hilabete zehar. Zentzugabea da. Jende gehiagok irakurtzen du elkarriketa liburua baino, eta hori sustatzen dugu guztion artean".

Joera horretatik ihesi, Farmazia Beltzakoak zarata handirik atera gabe ari dira ekinean. Ez dakite proiektuak zenbat iraungo duen, baliteke kontu efimero bat izatea ere. Ez die axola. Oraingoan, jar-

rraitu nahi dute zer diren gehiegi zehaztu gabe, kaos ordenatu batean, onena horixe delakoan. "Egitasmo mota batzuek, enpresek kasurako, behar dute izen bat, plangintza bat, eta abar. Baina badira beste proiektu klase batzuk desantolamenduan soilik funtzionatzen dutenak. Hasten zarenean etiketa bat jartzen, hierarkizatzen... pikutara joaten dira. Jendeak klase guztietako asmoak izaten ditu: batzuek curriculum a egin nahi izaten dute, besteek beren burua gainontzekoen gainetik azaldu... Guk gauza ederrak egin nahi ditugu, ezohikoak, geu ere harritzen gaituztenak".

MAPARIK GABE NABIGATU

Artelekun inoiz bizi izandako gertakari bat jarri du adibidetzat bi botikarioetako batek. "Filmak ikusteko elkartzeko hasi ginen tartean behin. Batek zerbezak eramaten zituen, besteak hummusa egiten zuen... izugarri ekimen ederra zen hura. Halako batean, ordea, norbaiti bururatu zitzaion egiten genuen hari izen bat jarri behar zitzaiola, gero diru-laguntzak bazeudela halakoetarako... Akabo. Hortxe izorrratu zen dena".

Ez dute halako egituratzerik nahi Farmazia Beltzan. Horrek ez du esan nahi, ordea, egiten dutena ez denik profesionala, edo lanak mimitzen ez dituztenik. Zerocalcareekin gertatutakoa jartzen dute adibidetzat. "Milanera joan ginen bere argitaletxearekin hitz egitera, alea eramanez genuen... oso harreman profesionala izan zen. Are, gure filosofiarekin bat etorri zirelako sinetsi zuten guran". Era berean, oso argi zeukaten komikia ze paper motarekin argitaratu nahi zuten, edota orrialdeek ze koloretakoak behar zuten. "Edizio zainduak dira, hala egitea gustatzen zaigulako. Ematen du gurea moduko antolaketa-ekin egin daitezkeela lau txapuz fotokopiagailuan, baina ez da horrela. Norabide eza ezinbesteko osagaia da guretzat. Itsasora nabigatzera ateratzea, oraindik mapetan erregistratu ez diren tokietara. Ez dakigu hau ala beste egingo dugun, baina gure mapa osatzen ari gara pixkanaka. Noski, horrek ez du esan nahi nabigatzen txarrak garenik. Besterik gabe, ez dugu aurrez jakin nahi bidaia nora doan". ●

FARMAZIA BELTZEKO BOTIKARIAK:

Egitasmo batzuek behar dute Plangintza bat, baina beste batzuek desantolamenduan soilik funtzionatzen dute: pikutara joaten dira etiketa bat jartzen hasiz gero

MARCOS
okindegia

**Benetako
antzinako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)